



## Ramon Etxezarreta

◆ PSE-EEKO KIDEA

# Dena egiteko

LIPUARENGANDIK ihes egiten den bezala aparatutik alden du nahi izan zaizkigu, itxuraz, Espainiako Alderdi Sozialistaren idazkaritzako hautagaiak. Politikagintzak eraman duen burubideak horretan utzi ditu politika bera eta alderdia, egingakoen ardura, ondo egindakoena barne, azaltzeko lotsatan. Badirudi orain arteko behar zen lekuan eta moduan egon ez bagina bezala gertatzen ari dela denbora berrien atari behar omen deskreditu garai hauetan.

Aparatuak berak ere bare eta mantso irudia, ez politikoa-renak, agertu nahi izan dio gizarteari baina hautagaietako bati larrutik ordainarazi diola esango nuke. Hirugarrenak aparatuen antagonista nagusia zirudien, alderdiaren ertz kanpoaldekoa; bigarrenak aparatua ukatu behar izan zuen sinesgarritasuna irabazi nahian, aski ez balitz bezala hura derri-gortu izana militanteen boto zuzeneko hautes-prozesua ekitera; lehenak eta garaile atera denak zirudien kontinismoaren eta aldaketa kontrolatuaren berme, aparatuen aldekatutasun ezkutuko baina disimulgaitza medio.

Hala joan dira lehen pausurako ezinbestekoak ziruditenak, gidari berri bat aurkitzekoarenak. Egina dago. Baina zail da hiru aukerak zituzten ezberdintasunak bereiztea eta hiru diskurtsoen eduki eta programen arteko aldeak, baldin badaude behintzat, bereiztea. Badago bada denbora berrien irudia eta hotsa jarriko diena, idazkari nagusia. Orain diskurtso eta jarrera berriak zein diren ikusi

beharko da benetako aldaketa dela frogatu ahal izateko.

Ortodoxia instituzionalak ia itotzera ekarri dugun alderdi sozialistak eginkizun dezente dauzka aro berri honetarako. Alderdiaren eta erakundearen erregenerazio garden bat gabe irauten ere lanak izango lituzke gertatuko denik ez dirudien eskuinaren porrot edo kataklismo ustekabeko bat ezean. Herritarren konfiantza berreskuratzea ezinbestekoa du.

Ez populista, ez erradikal-keriazkoa eta ez nazionalista den diskurtso ezkertiarra erakitzeke ekarpenak egin beharko ditu, European horretarako erreferentzia politiko eta intelektualik ikusten ez den sasoi honetan. Espainiako nazionalismoekin nolako solaskidetza

*Ortodoxia instituzionalak ia itotzera ekarri dugun alderdi sozialistak eginkizun dezente dauzka aro berri honetarako. (...) Herritarren konfiantza berreskuratzea ezinbestekoa du*

izan definitu beharko du, eta PPrenez nazionalismoarekiko nolako tartea mugatu. Beste alderdiek buruen hautu zuzena egiten hasten diren arteko denbora dauka, ekonomiaz, Kataluniaz eta ETAririk ez dagoen erako proposamen politikoak pentsatzeko. ■



## • IRITZIAREN LEIHOA

### BERTSO BERRIAK

## Gero arte Palestina!



XDDZ

### Ruben Sanchez Bakaikoa

◆

**Doinua:** Juana Bixenta Olabe.

Bihotz-begiak gor iltzatuta, telebistak automatizatuta: hiru militar ta bi hegazkin, hurrena errausak ta lau gorpuzkin. Mandoa hartu, sentipen dosia baloratu, noiz piztu eta noiz amatatu.

Ez txuri, ez beltz, ez denez ezer, ez gaude prest egiteko edozer, jarrera ezberdinak izateko eskubidea beti tarteko... Baina ez dakit den, jarrera ezberdin baten ondoren, edo asko axola ezaren.

Albistegiek ez badakarte, zutaz berri gehiago, gero arte! Berriz ere hurrengo sarraskian mobilizatuko gara agian... Gu bitartean, siestan gaude ta ez jo atean, onak izan ta bizi pakean! ■

